

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia

Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

KONTROL MOZIOA **Emakumeen Etxea berriz irekitzea**

EH Bildu udal taldeko zinegotzia naizen Reyes Carrere Zabalak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua babesean, KONTROL MOZIO hau aurkezten diot Udalbatzari azterkizun, **Emakumeen Etxea berriz irekitzea** dela eta. La moción de control es consecuencia de la interpelación presentada en la comisión de Servicio a las Personas el pasado 15 de junio.

Justifikazioa

COVID-19k eragindako alarma egoeraren ondorioz, Emakumeen Etxea hiru hilabetez egon da itxita, eta ez dakigu, oraino, noiz irekiko dituen ateak. Hala ere, telefono bidezko arreta, laguntza juridikoa eta premia-aholkularitza psikologikoa eskaintzen jarraitu du. Era berean, eta dinamizatzailen ahalegin handiarekin, ahalduntze ikastaro eta talde askok funtzionatu dute (edo egiten jarraitzen dute) modu telematikoan.

Garrantzitsua da gogora ekartzea Berdintasun Bulegoak, talde feministek eta gure hiriko emakumeen elkarteek batera kudeatzen duten gune horrek duen garrantzia; izan ere, urtero 35.000 erabiltzaile baino gehiago jasotzen ditu ikastaroetan, aholkularitza zerbitzuan, lantegietan, hitzaldietan... Horri dagokionez, aipatu behar da itxiera horren ondorioz 25 jarduera baino gehiago eraginda geratu zirela.

Egoera hori ezin da denboran luzatu, eta funtsezkoa da aurrez aurreko arreta lehenbailehen berrezartzea, emakume askok espero baitute Emakumeen Etxeko ateak irekitzea.

Hala ere, orain arte ez dugu jaso Berdintasuneko zinegotziaren berririk, ezta informaziorik ere, gune hau nola eta noiz irekiko den azaltzeko. Horrek kezkatu egiten gaitu; izan ere, lekuri ezak eta espazio publikoetan nahitaezko osasun segurtasuneko distantziak errespetatu beharrak baldintzatu eta mugatu egingo dituzte nahiz programatutako jarduerak nahiz etorkizunekoak. Beraz, horietara sartu ahal izango diren erabiltzaileen kopurua nabarmen murriztuta gelditu daiteke.

Gai horri buruz galdetuta, zinegotzi ordezkariak argitu zuen laster irekiko dutela berriz. Hala ere, onartu zuenez, “etxea ezin da denontzat zabaldu, aldez aurreko hitzordua duten norbanakoentzat baizik; hau da, aldez aurreko hitzordua eta toki kopuru mugatua duten zerbitzuak emateko”. Halaber, onartu zuenaren arabera, “uztailean etxea ireki daiteke, baina jarduera mugatua izan da”.

Hala ere, programatutako jarduera ukituta geratuko dela onartu arren, ez zuen aukera bakar bat ere eskaini egoera horren aurrean.

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia

Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

Emakumeen Etxearen elkarteak funtsezkotzat jotzen du arazo horri ahalik eta lasterren konponbide bat aurkitzea, eta ustea du Tabakaleraren espazioak baldintza egokiak betetzen dituela edukiera mugatua dela-eta ohiko lekuan bertan egin ezin diren jarduerak hartzeko.

Horiek horrela, behean sinatzen dudan zinegotzi honek honako KONTROL MOZIO hau aurkezten dut

1. Donostiako Udaltzaker udal Gobernuari hertsatuki eskatzen dio beharrezko kudeaketak egin ditzala Tabakalerako Administrazio Kontseiluan, tokirik ez egoteagatik eta COVID-19aren krisiaren ondorioz sarbidea mugatuta izateagatik Emakumeen Etxean egin ezin diren jarduerak Tabakalerako instalazioetan hartzeko, eta erabilera horrek Emakumeen Etxearentzat inolako kostu ekonomikorik ez ekartzeko.
2. Donostiako Udaltzaker udal Gobernuari hertsatuki eskatzen dio txosten bat egin dezala muga horrek Emakumeen Etxek jardueretan izan dezakeen eraginaz, eta muga horrek zenbat emakumeri eragin diezaiekeen azaltzeko, eta informazio hori Berdintasun Kontseiluari eta Emakumeen Etxeko Elkarteari helarazteko.

Donostian, 2020ko ekainaren 19an

Reyes Carrere Zabala,
EH Bildu udal taldeko zinegotzia.